

KALERATZEEN ONDORIOZ HANDITZEN ARI DEN PERTSONA ETXEGABEEN **KOPURUA DELA-ETA, KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2021eko urriaren 18an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko azaroaren 4an, nahiz eta pandemia garaian egon eta batere kontuan hartu gabe Lehendakariak 2020ko urriaren 26an emandako 36/2020 Dekretuak eta 2020ko urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak SARS-CoV-2aren kutsadura ez zabaltzeko ezarritako neurriak (hau da, 23:00etatik 06:00etara etxean izateko agindua), Infernua lantegian bizi ziren 60 bat pertsona kaleratu zituen Ertzaintzak Udalaren laguntzarekin.

Pertsona hauei ez zitzaaien beste bizitokirik eskaini erakunde publikoen aldetik, eta hirugarren sektoreko erakunde batzuen esku utzi ziren (Harrera sarea, Caritas, Arrats, Sos Arrazakeria...) haien osasun eta elikadura beharrak, nahiz eta osasun larrialdian izan eta Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuak jasotzen duen gizarte-bazterkerian den edozein pertsonari kasu egin beharra, hartarako eskubide subjektibo eta unibertsala duelako.

Urtebete pasatu den honetan, 2020an aterperik gabe gelditu ziren horiek antzeko egoeran jarraitzen dute, eta hilabetetik hilabetera pertsona gehiago gehitzen dira gure hirian bizitokia izateko zailtasunak dituztenen giza-taldera.

Oraingoan, Añorgan eta Martutenen gertatu dira azkeneko kaleratzeak. Hain zuzen ere, irailaren 28an, hamabost bat pertsona, besteak beste emakume afrikar bat, kaleratu zituzten epailearen aginduz, Donostiako Añorga Txikiko Firestone fabrikatik, Amasorrain ikastetxearen ondoan. Aste berean, beste pertsona kopuru bat kaleratua izan zen Martutene kaleko 71, 73 eta 77. zenbakietatik. Urriko batzordeetan Gizarte-ekintzako delegatuak adierazi zuenez, horietatik lau artatuak izan dira Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuan, baina aterpe finkorik gabe gelditu dira.

Gauzak horrela, handituz doa gure hirian kale egoeran dauden pertsona kopurua, egoera zaugarrian eta inolako etxebizitza irtenbiderik gabe, ardura guztiak hirugarren sektoreko

EH Bildu talde politikoa **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

eragile zein elkarteetan edo herritarren elkartasunaren esku utziz. Gainera, gure hiriburuak ez du inondik inora betetzen 2016an Etxegabeentzako Euskal Estrategian sinatutakoa (hau da, gutxienez % 20 murriztea kalean, EAEko udalerrri nagusietan, lo egiten duten pertsonen kopuruak 2020rako).

2020ko datuek argazki iluna marrazten digute: 2020an Euskal AEko gizarte-zerbitzuek etxegabeei emandako arreta 299 zentrok eta zerbitzuek eratzen duten sare baten bidez egin zen; sare horrek 3.471 pertsonari eman zien ostatu, batez beste, eguneko, 2018an baino % 16,5 gehiagori, Eustaten datuen arabera; ostatu emandako pertsona horien artean, 622 bazterketa egoera larriagoa zuten pertsonak ziren.

Gizarte-ekintzako delegatuaren iritziz, Donostiak ezin du baliabide gehiago jarri, bere gain hartzen dituelako Gipuzkoako bazterkeria baliabide gehienak, baina, Eustatek argitaratutako datuen arabera, EAEko hiru herrialdeetatik Gipuzkoa da lurralde-eredu deszentralizatuena; izan ere, Donostiak Gipuzkoako ostatu-plazen % 42,2 eskaini zituen 2020an, jateko zerbitzuaren % 33,7 eta eguneko zentroetako plazen % 44,5.

Neguaeren ateetan gauden honetan, Udal Gobernuak estimatzen du 60-100 norbanako daudela etxerik gabe eta aterpe baliabiderik gabe gure hirian. Hirugarren sektoreko eragileek, ordea, errealitate gordinadao trasladatzen digute. Oraingoz, ez da aurreikusitako etxerik gabeko pertsonentzako plaza gehiago irekitzea eta ikusteke dago zer gertatzen den Lehen Urratsa izeneko programapean gure hirian dauden plazekin; izan ere, Jaurlaritzaren esanetan, abenduan zerbitzu honi amaiera emango zaiolako.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, bitartekaritza lana egin dezala jabe pribatuekin, kaleratzeen aurrean inor babesgabezia egoeran gelditu ez dadin.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hirian kaleratze bat egon behar dela jakiten duenean, Udaltzaingoaren eta Gizarte-ekintza sailaren arteko interbentzio konpartitua abiatu dezala kaleratzea gertatu baino lehen.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Lehen Urratsa programa mantendu dezala, nahiz eta Jaurlaritzak programa bukatutzat eman, eta 2021eko aurrekontuan aintzat hartu dezala.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, norbanako bat kale gorrian gelditzeko arriskuan dagoenean, Lan Partekatuaren Plana sustatzeko diru laguntzak tramitatzeko saiakera egin dezala, pertsona horrek logela bat alokairuan hartzeko edo aterpe bat ordaintzeko aukera izan dezan.

Donostian, 2021eko urriaren 22an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia